




Ramon Zallo Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da. Jaiotzez gernikarra, baina umea zela aldegin zuen familiak Bilbora. Gaur Mungian bizi da. Ikus-entzunezko komunikazioa irakasten du Informazio Zientzietako Fakultatean, Leioako campusean. Informazio Zientzietako doktorea eta ikus-entzunezko komunikazioan katedraduna ere bada.

>>>>>>

Testua: Izaskun ELLAKURIAGA

Argazkiak: Aitor GONZALEZ KINTANA

Я


amon Zallo

«Bertsolaritza

komunikazio publiko

moduan definituko

nuke»



z du bere bu-
rua bereziki bertsoaletzat jotzen. Hala ere,
Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagu-
siaren finalean izan zen Bertsozale Elkar-
teak gonbidatuta. Aldi bereko itzulpenak lagun-
duta segitu zuen saioa. Egun hartako inpre-
sioak eta bertsolaritzari buruzko ikuspegia
agertzen ditu elkarriketa honetan.


Txapelketa Nagusiko finalean Bertsozale El- karteak gonbidaturik izan al zinen?

Joateko asmoa banuen, baina gonbidapena
hartu nuen. Joxerra Garziarekin izandako el-
karriketa batean bat-bateko itzulpen zerbi-
tzua jartzeko asmoa zutela enteratu nintzen,
eta beste lagun batzuekin joan nintzen,
itzulpenak txapelketako finala hobeto segi-
tzeko aukera ematen baitzigun.

Beraz, itzulpenak lagundu egiten du txapelke- ta jarraitzen?

Batzuetan lagundu egiten du eta beste ba-
tzuetan galarazi. Euskarari dagokionez, nire
ulermen maila ehuneko 75ekoa dela esan
dezaket. Kaskoak kendu eta jarri pasatu
nuen eguna. Ia guztia ulertzen nuen, baina
xehetasunek eskapatu egiten zidaten eta ka-
su horietan itzulpenak mesede handia egi-
ten zidan, xehetasunak jasotzeko orduan
alegia. Gainera sei edo zortzi ordu arretaz
jarraitzeko gaitasunik ez du ni bezalako
euskaldun batek, ahalegin handia eskatzen
du horrek eta nekagarri gertatzen da. Itzul-

***Aldibereko itzulpenak batzuetan lagundu egiten
du eta beste batzuetan galarazi. Euskarari
dagokionez, nire ulermen maila ehuneko 75ekoa
edo 80koa da.***




pena lasaigarri bihurtzen da gure kasuan.

Bertsozalea al zara?

Ez, bereziki. Bertsoak gutxitan entzuten di-
tut. Inoiz behin "Hitzetik hortzera" ikusten
dut, baina saio osoa gutxitan, arreta man-
tentzeak ahalegin gehiegizkoa eskatzen bai-
tit. Dena den, bertsoren bat edo beste arret-
taz entzutea gustatu izan zait. Erdi-bertsoza-
le naizela esan dezaket, be-
raz.

Bertso saioetara ez zara joa- ten, beraz.

Ez askorik. Guztira lau pa-
bost saiotan izan naiz, ez



gehiagotan. Finalean, hala ere, gustura egon nintzen.

Noiz sortu zaizu bertsolaritzarekiko interesa?

Gaztetan Gernikara joaten ginen oporretan eta bertsolarien berri zuzena izan nuen, baina Bilbotik zihoan nire moduko gazte hiritar batentzat ez zuen bertsolaritzak interes zuzenekorik. Mundu hark ez ninduen erakartzen, batez ere lantzen zituzten gaiengatik. Eta sumatzen ari naizen aldaketa nagusietako bat horretan dagoela.

Gaurko gizartea, nagusiki, hiritarra da eta bertsolaritzak nekazaritza giroan du bere jatorria. Hala ere, egungo gizarte hiritartu honetara egokitzeak izan duen gaitasuna mi-

resgarria dela iruditzen zait. Agian gehiegi egokitu dela ere esango nuke.

Zein zentzutan esaten duzu gehiegizkoa dela egokitzapen hori?

Bertsolaritzan prestakuntza kultural handiko jendea dabil, tartean unibertsitarioak, ondo jantzitako jendea, asko dakiena eta batez ere ikuspegi hiritarra duena. Komunikabideetan aztertzen diren gaiak plazaratzen dituzte eta bertsolaritza gizartearen modernizazio horren isla bihurtu da. Bizitzari aurre egiteko lehengoek zuten ikuspegia galtzeko arriskua ikusten dut bide horretatik.

Aipatzen duzun gehiegikeria hori kalterako izan al da?

Ez, ez dut hori esan nahi. Baina zerbait galtzen ari den inpresioa dut. Dena dela, lehen esan dizudan moduan, eboluzioak berak dakarrena da. Hala ere, noizbehinka atzera begiratzea komeni dela uste dut.

Zer inpresio izan zenuen Anoetako finalean?

Gauza askok harritu ninduen. Lehenik eta behin inprobisatzeko gaitasunak. Gai bat eman eta, edonork iritzi bat emateko astia hartu ohi du hizketan ari denean. Bertsolariak, aldiz, denbora oso mugatuan zeresana bakarrik ez, esanahi hori modu neurtuan, errimatuan eta kantatuan adierazi behar du. Kasu batzuetan, gainera, Maia gutunei buruz aritu zenean esate baterako, bertsoa ez ezik poesia ere egin zela esango nuke.

Errima aniztasuna ere aipatuko nuke, neurri desberdinetako bertsoetara egokitze gaitasuna. Bertsolarien kontzentrazio maila ikusgarria iruditu zitzaidan, ez baita erraza hain denbora gutxian gai baten inguruan bizpahiru gogoeta egitea.

Gaien aniztasunak ere garrantzia duela uste dut. Eta hain zuzen ere bertsolaritzaren aurkikuntza nagusia horixe dela esango nuke. Antzinako bizimoduari baino gehiago mundu erreal eta modernoan sortzen diren arazo eta beharrei erantzuten die gaurko bertsolaritzak. Eta uste dut bertsolaritzak gaur duen arrakastaren klabeetako bat hortxe dagoela. Inprobisazioa pertsonak berez dituen dohaineekin lotu izan ohi da. Bertsolaritzaren

Ezin da diskurtso luzerik egin bertsotan eta askotan, ezinbestean, hausnarketarekin inpaktua sortu nahi izaten du. Diskurtso horren politizazio maila ere aipagarria da.


kasuan, hala ere, oso garbi ikusten da dohain horiek landu egiten direla. Dena den, bertsolariak bere mugak ditu.


Ezin du diskurtso luzerik egin bertsotan eta askotan, ezinbestean, hausnarketarekin inpaktua sortu nahi du. Eta, azkenik, diskurtsoen politizazio maila ere aipatzekoa dela uste dut.

Zer tamainatakoa da aipatzen duzun politizazio hori?

Nik uste dut politizazioa gehiegizkoa dela. Eta gehiegikeria ez dago, beharbada, galderetan, erantzunetan baizik. Eta kasu honetan

oso sakon eta emotiboki bizi dugun arazo bati buruzko ikuspegia murrizteko arriskua ikusten dut. Beharbada gehiago zaindu behar den gaia da hau, bertsolaritzak partaidea plurala duen eremua izan behar baitu, inor bertan arrotz senti ez dadin edo normalean konpartitzen ez dituen ideiak agertu beharrean aurki ez dadin.





zakegu?

Zentzu tradizionalen ez, masa komunikabideek sistema industrialei eta komunikabideei egiten baitie erreferentzia. Baina ahozko komunikazio den neurrian, espazio ireki batean egiten den komunikazio den neurrian, elkarriaketa bezala antolatzen den neurrian, aurrez aurreko jarduera den unetik, bertsolaritza komunikazio tresna garrantzitsua da, baina, jakina, ez ditu beste komunikabideek dituzten bitarteko komertzial eta industrialak. Gainera ez da erabat komunikazio horizontala, entzuleek ere parte hartzen baitute. Nik, agian, komunikazio publiko moduan definituko nuke.

Bertsolaritza ikus-entzunezko medioei nola egokitu zaie?

Ikuskizun bizia den neurrian bere zailtasuna du eta telebistari egokitzerakoan arazoak sortzen dira. Antzerkiarekin gertatzen den moduan. Telebistaz antzezlari bat ikustea ezinezkoa da eta horregatik egokitu egin behar zaio telebistari.

Bertsolaritzarekin gauza bera gertatzen dela esango nuke. Telebistaren medioari egokitu behar zaio bertsolaritza, baina ikuskizun bizi izateak dituen osagarriak galdu gabe. •

Uste dut esfortzu bat egin behar litzatekeela despolitizatzeko, baina ez politika kentzeko, politika neurritz erabiltzeko bai-zik. Ez dut uste bertsolaritzaren errua bakarrik denik.

Publikoaren presentziak berak gauza jakinei buruz kantatzera behartzen ditu bertsolariak, txalo jotzearen alde. Edo behar bada bertsoak entzutera doazen entzuleak daude arras politizaturik, esparru hori bere esparru gisa ikusten duelako eta bertsolaria bera ere komunitate baten ordezkari sentitzen delako.

Bertsolaritza masa komunikaziotzat har al de-